

Aeronautika sektoreko enplegu suntsiketari EZ

Bai, badago irtenbiderik!

Borrokak bateratu eta lanpostuak defendatu!

Duela hilabete batzuk arte, aeronautika sektoreak pisu ekonomiko handia zuen Estatuan. 2019an, 100.000 langile baino gehiago zituen zuzeneko eta zeharkako lanpostuen artean, eta BPG industrialaren %6,1 ematen zuen, eta Boeing edo Airbus bezalako fabrikatzaile handiek hurrengo 20 urteetarako mundu mailako hegazkin-flota bikoiztea aurreikusten zuten. Aurreikuspen horiek guztiak bertan behera geratu dira krisi ekonomikoak okerrera egin ostean, koronabirusaren epidemiaren hedapenak eraginda. Sektore aeronautikoan ekoizpena %40 jaitsi da. Airbusen aurreikuspenen arabera, 2023 edo 2024ra arte ez da susperraldirik espero, baina hori zalantzan dago, nazioarteko egoera ekonomikoa ziurgabetasun handikoa baita. Izan ere, Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) bezalako erakundeek beherantz egindako aurreikuspenak berrikusi behar izan dituzte, Covid-19aren berragerpen gehiago egon daitezkeelakoan. "V" errekupezioaren hasierako ikuspegia gero eta urrunago dago.

Ohi denez, kapitalistak krisialditik ateratzeko hartzen ari diren neurriak enplegua suntsitzea eta murrizketak sozialak dira, hau da, pobrezia orokortzea, haren onurak salbatzeko eta gizarte osoak sortutako aberastasun guztia gero eta esku gutxiagotan bilduz.

Patronalaren errezeta: poltsikoak laguntza publikoen diruaz betetzea eta milaka langile kaleratzea

Hori da sektore aeronautikoko enpresa guztiak planteatzen ari direna: Airbus, Aciturri, Alestis, Aernnova, ITP eta gainerako enpresa laguntzaileak eta azpikontratak. Sektorearen gorakadari esker eta langileen gehiegizko esplotazioari esker gehi gobernuen eta erakundeen aldetik jasotako laguntza ugari esker azken urteotan milioi askoko irabaziak lortu dituzte. Etekin izugarriak lortu arren orain aurrekaririk gabeko eraso bat egin dute, enpresa horietan guztietan kaleratze sorta handia iragarritz mozkin horiei euste-



ko. Benetako birmoldaketa ezkutua, ondorio dramatikoa izango dituen milaka familiarentzat.

Enpresa horietan guztietan sinatutako enplegu-erregulazioko espedienteek ez dute balio izan enplegu-suntsiketa orokor hori saihesteko. Aitzitik, kaleratzeei bidea erraztu diete, eta, gainera, kaltetutako langile guztien soldatak altxor publikoaren gain utzi dituzte, urte hauetan urrea egin dutenek euro bakar bat ere jarri behar izan ez duten bitartean.

Langileoi esaten zaigunetik urrun, krisi honen irtenbidea ez da enpresentzako laguntza gehiago eskatzea edo Estatuak laguntza horien ardura hartzea diru publikoarekin onbideratzeko eta ondoren krisiaren ondoren jabeek itzultzeko. Airbusek Espainiako gobernutik jasotako zuzeneko laguntzak adibide ona dira: uztailearen 30ean lortutako akordioaren ondoren, ez dute inolako arazorik izan 3.500 langileren kaleratzea iragartzeko. Eta ez da irtenbide bat konponbide indibidualak proposatzea, borondatezko baja pizgarriekin, aurre-erretiroekin, eszedentziekin, etab. Hori —kasurik onenean— *gaurko ogia biharko gosea* baino ez da. Estrategia horrek esan nahi du berreskuratuko ez diren milaka lanpostu suntsitu behar direla, enplegua mantentzen dutenei esplotazio handiagoa eta baldintza okerragoak ezarri behar zaizkiela, eta gazteak langabeziara eta derrigorrezko emigrazioa kondenatu behar direla.

Badago beste aukerarik! Sektore aeronautikoa nazionalizatzearen alde borrokatzea langileen kontrol demokratikopean kudeatuz

Etengabe argudiatzen da krisiaren ondorioz sakrifizioak egitea ezinbestekoa dela, itxierak, kaleratzeak eta abar onartu behar direla. Baina hori ez da inola ere egia. Aeronautikako industriaren ekoizpenak bete ditzakeen premia sozial ugari daude —garraio bide publiko eta ekologikoen fabrikazioa, besteak beste—, baina enpresaburuek ez dute horretan inolako interesik. Dirua eraman nahi dute, eta prest daude kapitalisten printzipio sakratu horren izenean beharrezkoak diren sakrifizio guztiak GUK egin ditzagun.

Kaleratzeak eta eraso horiek guztiak saihesteko modua borrokatzea da sektore aeronautikoa nazionalizatze eta langileen kontrolpean jartzeko. Ekoizpenaren helburua honakoa izan beharko zen: bete gabe dauden eta pandemian agerian geratu diren ga-beziak asetzea.

Horrela, lanpostuak bermatzeaz gain, azpikontratazioa eta aparteko orduen soldata-eskala bikoitzak, etab. Hori da PSOEn Gobernuak eta UPk egin beharko luketena, "Industriarako laguntzak" izenarekin dirua oparitzen jarraitu ordez.

Patronalaren erasoaldiaren aurrean, sektore osoaren borroka bateratu eta kalean erantzun!

ITPko eta Alestiseko lankideak 600 eta 87 langile kaleratzearen aurka mobilizatzen hasi dira. Hori da bidea, baina denok batera egin behar dugu sektore aeronautiko osoan, indar eta presio handiagoa egiteko. Mobilizazio horiek sektore aeronautikoko gainerakoekin batu behar ditugu, eta erasoei erantzun bateratu eta irmoa eman. Mobilizazioa ezin da modu isolatuan egin enpresaz enpresa. Sektore aeronautiko osoa modu koordinatu eta bateratuan mobilizatu behar da. Lantoki bakoitzean batzarrak egin behar ditugu, sektore osoarako mobilizazio egutegi bateratua demokratikoki eztabaidatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da sindikalismo borrokalari defendatzea. UGTk eta CCOO-k alde batera utzi behar dute bake sozialerako eta *gaitz txikiena* onartzeko politika. Euskal gehiengo sindikalak, bere aldetik, urtarrilaren 30eko greba orokorrekin hasitako konfrontazio bideari heldu behar dio berriro, sektoreko borroka bateratu behar ditu eta aldarrikapen programa alternatibo bat defendatu behar du, enplegua ez suntsitzeko eta industria aeronautikoan lan baldintzak ez murrizteko:

- Lan kargaren gutxitzeari aurre egiteko, lanaldia murriztu behar da, soldatarik jaitsi gabe eta industria birmoldatu behar da estali gabeko behar sozialak asetzeko.
- Enpresa horien irabaziak gizartearen zerbitzura jartzea, krisiari aurre egiteko.
- Enplegua suntsitzen duten eta interes pribatuak interes sozialaren aurretik jartzen dituzten enpresa guztiak langileen kontrolpean nazionalizatzea, baliabide horiek gaur egun asetu gabe dauden behar sozial ugari asetuko dituzten produktuak ekoizteko.

Horixe da industria-desegitea saihesteko, kalitatezko enplegu egonkor bat bermatzeko eta miseria eta prekarietatearen orokortzearen aurka borrokatzeko dagoen modu bakarra.